

AHOZKO HARREMANAK

- Lehen hitza beti euskaraz eta solaskideak euskaraz hitz egiten duen hizkuntzan jarraitu.
- Hartzaile jakinik gabeko mezuak euskaraz eta gaztelaniaz, ordena horretan.

IDATZIZKO HARREMANAK

- Idazkia Akademiak bidaltzen duenean, ele bitan, baldin eta hartzaileak edo herri administrazioak berariaz hizkuntza bat aukeratu ez badu.
- Bideak jarriko dira, adostasuna oinarri izanda, euskararen erabilera sustatzeko.
- Akademia hartzailea denean euskaraz erantzungo dio euskaraz idatzitakoari, gaztelaniaz edo ele bitan gaztelaniaz idatzitakoari, eta ele bitan idatzitakoari ele bitan.
- KOMUNIKAZIO ELEBIDUNETAN EUSKARA NABARMENTZEKO NEURRIAK:
 - **Hitzak:** euskara aurrean edo gainean.
 - **Zutabetako idazkiak:** euskarazkoa, ezkerrean.
 - **Orrialdeka idazten denean:** eskuinaldekoa euskaraz.
 - **Tipografikoki:** beltzez, hizkia handiagoz...

KOMUNIKAZIO TELEMATIKOA

- Herritarrak erabiltzen duen hizkuntza ofizialean (euskaraz edo gaztelaniaz)

ITZULPEN IRIZPIDEAK

- Langileak lanpostuari dagokion hizkuntza eskakizuna egiaztatuta baldin badu, eta beharrezko prestakuntza jaso badu, ele bietan sortuko ditu idazkiak. Dena den, langileek egindako testuak gainbegiratzeko eta zuzentzeko, hizkuntza normalkuntzako teknikariaren laguntza izango du.

ERREGISTROA

- Erregistroko aplikazioak idatziaren hizkuntza jasotzeko aukera emango du.
- Dokumentua idatzita dagoen hizkuntza edo hizkuntzetan egingo da erregistroa.

ARGITALPENAK

- Akademiak egiten dituen argitalpenak bi hizkuntza ofizialean egingo dira.

TRESNA ETA APLIKAZIO INFORMATIKOAK

- Bi hizkuntza ofizialean erabiltzeko prestatuta egongo dira aplikazio guztiak, bai eta bakoitzaren eskuliburuak ere.
- Euskarazko bertsioaren erabilera hobetsiko da lanpostuko hizkuntza eskakizuna (gutxienez 2. HE) egiaztatuta duten kasuetan eta atal elebidunetan.

INTERNET ETA INTRANET

- Edukiak euskaraz eta gaztelaniaz kontsultatzeko moduan egongo dira. Sartzean aukera izango dugu hizkuntza aukeratzeko.
- Izapideak egiteko aukera ematen dugunean, izapide horiek euskaraz eta gaztelaniaz egin ahal izango dira.
- Akademiatik kanpoko edukiak gure web orrian barneratzen ditugunean, bi hizkuntza ofizialak modu orekatuan erabiliko ditugu, eta kalitatea zaindu egingo dugu.

TWITTER

- Txio guztiak euskaraz eta gaztelaniaz argitaratuko dira.

ERROTULAZIO FINKOA ETA NOIZBEHINKAKOA

- Euskaraz eta gaztelaniaz.

IRAGARPENAK, PUBLIZITATEA ETA KANPAINAK

- Bi hizkuntza ofizialean egingo dira. Iragarpenok euskaraz argitaratuko dira euskarazko hedabideetan.
- Komunikazio-kanpaina kontratatzerakoan, baldintza izango da mezua bi hizkuntzetan sortua izatea.

IZEN OFIZIALAK

- Organo, egitarau, proiektu, jarduera edota ekintza guztiek bi hizkuntza ofizialean izango dute izen ofiziala.

EKITALDI PUBLIKOAK

- Euskararen erabilera bermatuko dute enplegatu elebidunek EAEko, Nafarroako eta Ipar Euskal Herriko ekitaldietan.
- Ekintza publikoen antolamendu fasean, hizkuntzak nola erabiliko diren zehaztuko du arduradunak. Teknologia berriei baliatuko gara euskara eta gaztelania erabiltzeko.

KONTRATAZIOAK

- Kontratazio organoek nahitaez sartuko dituzte administrazio kontratuaren gutun-azalean eta berariazko klausula administratiboen agerietan kontratuak burutzean behar diren hizkuntza baldintzak, Eusko Jaurlaritzaren Kontseiluak 2006ko otsailaren 28an hartutako akordioaren arabera.
- Hizkuntza baldintzen betetze-maila ebaluatuko da.

BILERAK

- Bilera gehiago euskaraz egiten ahaleginduko da Akademia, edo bilera formalean euskararen presentzia areagotzen; adibidez, aurkezpen osoa euskaraz egin ezin denean, bi hizkuntza ofizialak txandakatuz: ahoz gaztelaniaz esaten dena, pantailan euskaraz agertuko da edo alderantziz.



POLIZIA ETA LARRIALDIETAKO EUSKAL AKADEMIA
ACADEMIA VASCA DE POLICIA Y EMERGENCIAS



ACADEMIA VASCA DE POLICÍA Y EMERGENCIAS



CRITERIOS PARA EL USO DE LAS LENGUAS OFICIALES